

AMAIUR

KOKAPENA

Baztango bailara osatzen duten hamabost herrietako bat da Amaiur. Nafarroaren iparraldean dago, Iruñetik 58 km-ra. Herrira heltzeko N-121-B errepidea hartu behar da, eta, Otsondo mendatea igotzen hasita, bidegurutzean eskuinera dagoen bideak eramango gaitu herrira. Amaiur, 281 metroko altueran dagoen herria, Otsondoko mendatearen (602 m) eta Gorramendi (1074 m) eta Alkurruntz (932 m) mendien magalean dago.



Biztanleria: 283 biztanle zituen 2013ean.

ZER IKUSI AMAIURREN?

Amaiur ohiko kale-herria da, eta kilometro erdiko hedadura du. Etxeen aitzinaldeak ez daude lerrokatuta, eta ez dira denak berdinak; hartara, karrikaren monotonia hausten da, eta perspektiba ezin hobeak ematen ditu. Amaiurko etxeak arkitekturaz anitzak eta aberatsak dira; izan ere, ibarreko kategoria tipologiko gehienak ageri dira bertan.

Herriaren sarreran arku dago; herriaren ataria eta herrigunearen muga adierazten du. Arku bano lehen XVII. mendearen bukaerako gurutzarria dago. Bestalde, hemen aipatzen diren etxeen eta jauregien jauregi-arkitekturaren itxura nabarmendu behar da:

- **Arretxea jauregia.** XVI. mendean nagusia zen.
- **Borda jauregia.** 1728an lortu zuen oinetxe kategoria.
- **Arriada etxea.** Hor egiten ziren batzarrak XVI. mendean.
- **Herriko eliza.** Jasokundearena, Erdi Arokoa da, XVI. eta XVI-II. mendeetan hainbat aldiz berreraikia. Elizak Cavaille-Col organo erromantiko ederra du. Hala ere, Amaiurko lekurik aipagarriena Amaiurko gazteluaren aztarnategia da.



AZKEN DEFENDATZAILEEN MONUMENTUA

1922an, Amaiurko guduaren laugarren mendeurrenean monolito bat eraiki zuten gazteluaren aztarnen gainean. Monumentu hori Amaiurko gazteluaren setioan babestu zuten nafarren omenezkoa da.

Monumentua 1931n suntsitu zuten dinamitaz. Garai hartan, Nafarroako udalak Lizarrako estatutua eztabaidatzen ari ziren. Monumentua 1982an berreraiki zuten.

1930eko hamarkadan Lauaxeta poetak gertakari horri buruzko Amaiur gaztelu baltza olerkia idatzi zuen. Honela dio olerkiaren azken ahapaldiak:

“Berrehun gudari oso sumin
gaztelupean dagoz hilik.
Orditik ona zenbat laino,
Nafarroan ez da aberririk”.

AMAIURKO GAZTELUA

Amaiurko gaztelua Gaztelu mendian zegoen. Ez dakigu ziur noiz eraiki zen, baina jakina da 1191. urterako bazuela gazteluzaina. XV. mendera arte gazteluaren zeregin nagusia Iruñetik Baionara zihoazen merkatariei zergak kobratzea zen. Kontuen koadernoan merkataria izena, igaroaldiaren eguna, salgaiak, ordaindutako dirua... jasotzen zen.

Postuaren soldata jasotako diruaren zati bat izan ohi zen.

XV. mendetik aurrera, berriz, gazteluak defentsa-funtzioak ere bete zituen.

Gaztelua 1522ko uztailearen 15etik 19ra bitartean gudu garrantzitsu bat gertatu zelako da ezaguna, Amaiurko gazteluaren setioa hain zuzen ere. Nafarroako erregearen aldekoek Gaztelako koroaren aldekoen jazarpenari aurre egin zioten, uztailearen 19ra arte. Gerraren ostean, gaztelarren mendean geratu zen gaztelua, eta urte hartako abuztuaren 12an gaztelarrek suntsitu egin zuten.

AMAIURKO GAZTELUAREN SETIOA

1512an Gaztelako koroak Nafarroako Erresuma konkistatzeari ekin zion.

Konkistaren ondorengo urteetan, Nafarroako Erresuma berreskuratzeko hainbat saio egin ziren: besteak beste, 1512an, 1516an eta 1521ean. Hain zuzen, 1521ean, Nafarroa berreskuratzea lortu zuten; urte berean, Noiango gudua galdu ondoren, Nafarroa gaztelarren esku geratu zen, Amaiur izan ezik.

1522ko uztailearen 15ean, milaka lagun ez eta hamasei kanoiz osatutako gaztelar armadak gaztelua inguratu zuen. Amaiurko gazteluaren setioak, hau da, gaztelua indar militarrez menderatzeko ezarritako blokeoak, uztailearen 19ra arte iraun zuten. Gaztelako koroaren aldekoek lortu zuten, azkenean, gaztelu barrukoak menderatzea. Amaiurko gazteluaren defentsa, Nafarroa Garaiko konkistaren azken-aurreko borroka izan zen. Azkena Hondarribikoa izan zen, 1524an. Orditik aurrera, Nafarroa Beherea bakarrik gelditu zen berezko Nafarroako errege-erreginen esku, Nafarroa Garaia Gaztelako erregeen mende geratu zelako. Mirandako kondea erregeordeak, gazteluak zuen balio sinbolikoaz ohartuta, gaztelua suntsitzeko agindua eman zuen. Horma guztiak bota zituzten, zimenduen gaineko guztia birrinduz.